



Maitiak galdegin zautan
pollit nintzanez.





-eN ALA EZ zehar-galderaren baliokide da
 -eNEZ¹ aditz-atzizkia aurreko esaldian.

- Maitiak galdegin zautan
 pollit nintzanez. (=...pollit nintzeN ALA EZ)

¹Hona beste zenbait aldaera:
 -eNZ, -eNETZ, -eNENTZ

- **-(e)N** aditz-atzizki edo menderagailua itsasten zaie zehar-galdera orokorreari.
 - Gaixo askok galdetzen digu kalamua onuragarria **deN**.
- **-(e)N** menderagailuarekin batera, **ea** eta **ote** indargarriak ere erabili ohi dira zehar-galdera orokorretan:
 - Gaixo askok galdetzen digu **ea** kalamua onuragarria **deN**.
 - Denek galdetu didate berria jakin **ote dudaN**.

● Batzuetan, **-eN** menderagailuari hizki txiki bat edo batzuk gehitzen zaizkio, indargarri modura-edo. Hizkiok forma ezberdinak hartu ohi dituzte literatura-tradizioan: **-Z**, **-eZ**, **-eTZ** eta **-eNTZ**.

- Ea Sarako euskara **denz** Euskal Herriko hoberena eta garbiena ez naiz ni hartan sartzen.

Estebe Materre, *Dotrina kristiana*, 1617

- ...zeren ardura¹ galdatzen baizautaten ea seroratuko **nintzanez** ttantta² bezala.

Jean Etxepare, *Mendekoste gereziak*, 1963

¹ardura iz. adb. *Ipar*. Maiz, askotan

²ttantta iz. *Ipar*. Adkor. Izeba.

- Habil eta so egin ezan gizonik **denetz** ageri.
Bereterretxeren kantorea
- Nik ez dakit ezagututen **dozenetz** Txomin Txiki agurea...
Felix Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 1953

• Euskara baturako, ordea, **-(e)NETZ** forma gomendatu du Euskaltzaindiak. Hona zenbait adibide:

- Aurreragoko ikerketek esango dute iritzi hori zuzena **denetz**.

Antonio Damasio, *Descartesen hutsegitea*, EHU, 2012. Euskaratzailea: Isabel Etxeberria

- Zenbait esperimentuk iradokitzen dute arratoiek bizkorrago ikasten dutela eginkizun sinpleak burutzen substantzia kimiko batzuk hartuta (...) baina ez dago frogaturik droga horiek nahiz beste batzuk eraginkorrak **direnetz** gizakietan.

John Lenihan, *Giza gorputza lanean*, EHU, 2006. Euskaratzailea: Irene Aldasoro

- Izadiaren lege batek betebehar- ala debeku-izaera **duenetz** erabakitzea, baliteke sinesmen-kontua izatea.

Jorge Wagensberg, *Formen matxinada*, EHU, 2007. Euskaratzailea: Juan Garzia

- Ez da ikerlan askorik egin ikusteko ea eraldakuntza epigenetikoek rolen bat jokatzen **dutenetz** gene-espresioaren taxuera generozehaztaileak ezartzeko edo finkatzeko orduan, baina litekeena da noski.

Nessa Carey, *Epigenetikaren iraultza*, EHU, 2015. Euskaratzailea: Ixiar Iza

Orotariko Euskal Hiztegiatik eta «Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO)» corpusetik erauzi dira fitxa honetako adibide guztiz gehienak.



Nolanahi ere den, -eNETZ aditz-atzizkia debeku da zehar-galdera zatizkoetan, hau da, bai/ez erakoak ez direnetan, galdetzaileak (nor, zer, non, zergatik, ...) dituztenetan:"

- **Zer moduz zebileN galdetu nion.**

*Zer moduz zebilenetz galdetu nion.

- **Zergatik itzuli zareN jakin nahi du.**

*Zergatik itzuli zarenetz jakin nahi du.

Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia (2001). "115. araua. Zehar-galdera orokorretako aditz-atzizkia: -(E)N eta -(E)NETZ." <[hemen](#)>

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea (2005). "-eN eta -eNETZ" In *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1: osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 99.-100. or.

Euskara Institutua, EHU, "Zehar-galdera orokorrak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg